

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KLARINETEA 2019ko APIRILaren 4a

2019ko APIRILaren 4an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **klarinete** espezialitatean. Bertan esku hartuko dute José Luis Estellés, Sergio Barranco eta Amaia Cipitria irakasleek eta Musikeneko klarinete ikasleek.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten klarinete ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten klarinete ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Jardunaldiaren helburua

- Espezialitatearen ikasketa-planari eta irakasleei buruzko informazioa.
- Musikeneko klarinete ikasleekin, pianista laguntzailearekin edo gabe, egiten den lana erakustea.
- Orkestra Errepertorio eskoletan egiten den lana erakustea.
- Musikeneko klarinete ikasle batzuen eskutik entzunaldia.
- Eskola kolektiboetan egiten den lana erakustea, Ateak Zabaltzeko jardunaldian parte hartzen dutenekin batera.

Lan-egitasmoa

9.00: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Klarinete espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena. Eraikinari bisita gidatua.

10.00-12.00 / 12.15-14.15: José Luis Estellés eta Amaia Cipitria irakasleen eskutik Musikeneko ikasleekin eskola irekiak (pianistarekin).

10.00-12.00 / 12.15-14.15: Orkestra Errepertorio eskolak (ikasle aktiboen parte hartzearekin) Sergio Barranco irakaslearen eskutik.

16.00-18.00: José Luis Estellés eta Amaia Cipitria irakasleen eskutik ikasle aktiboekin eskola kolektiboa.

18.15-20.00: Musikeneko klarinete ikasleen kontzertua.

Non:

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750 E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Haize eta Perkusio instrumentuen Departamentu buruarekin: Rodolfo Epelde repelde@musikene.eus